

# ALKATEAREN BANDOA

## ZABORRAK MENDIAN BOTATZEA GALARAZITA DAGOELA GOGORARAZTEA.

Azkenaldian Aresoko hainbat parajeetan zaborra botata agertu da. Gertaera hau bereziki Gañarbera doan bidean errepikatu delarik.

Hori dela eta Aresoko herritarrei nahiz kanpotik etorritakoei zaborrak mendian botatzea galarazia dagoela gogorarazten dizuegu.

Mendian zaborra botatzen harrapatua den orok Herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzaren baitan **ISUNA JASOKO DU.**

Honetaz gain zaborra horretarako prestaturiko edukiontzietan bota behar dela azpimarratzen dugu:

- **Urdina:** Papera eta kartoia.
- **Horia:** Latak eta enbaseak (tetrabrikak, plastikoak...).
- **Berdea:** Errefusa.
- **Konposterak:** Organikoa.
- **Laranja:** Olioia.
- **Beira:** Beira.

Hilean behin **zabor bereziak biltzeko furgoneta** etortzen dela ere aipatu gogorarazten da.

Tamaina handiko hondakinen kasuan bilketa eskaera egin behar da **Mendialdea Mankomunitatean 948 510 444 telefonoan.** Ondoren “Traperos de Emaus”-etik interesdunarekin harremanetan jarriko dira bilketa adosteko.

Zaborren bilketaren inguruko informazio gehiago nahi duenak [www.mendialdea.eus](http://www.mendialdea.eus) helbidean topatuko du.

Aditzera ematen da, orok jakin dezan.

Areson, 2016ko otsailaren 26an.

Ur Alguero Chivite

Aresoko alkatea